

Mineralogia irteeran zaletu askok parte hartuko dute, aurten Zeraingo meategian

Urretxuko Udalak eta Urrelur museoak mineralogia irteera antolatu dute urriaren 24rako, Mineralogia eta Paleontologia Astearen barruan. Izena emateko epea bihar itxiko dute, eta kultur etxetik jakitera eman dutenez plaza gutxi gelditzen dira ja libre.

Irteerak arrakasta handia izan ohi du urtero, eta izena emateko epea ireki zutenetik bi egunera toki erdiak hartuta zeuden. Zaletu asko izaten da irteeraren zain, jendea itxaroten egon ohi da. Pozgarria da horrelako harrera izatea. Hilaren 24an egingo dute irteera, eta aurten Zeraingera joango dira, Aizpeko meategi eremura. Geologikoki eta mineralogikoki interesgarriak diren hiru gunetan ibiliko gara, eta laguntzaile teknikoak ere izango ditugu azalpenak emateko. Irteeran parte hartu nahi duenak 35 euro ordaindu behar du, autobusa eta bazkaria barne. 16 urtetik beherakoek 25 euro ordaindu beharko dute. Ordainketa gaurtik 21era bitartean egin behar da.

Gomendioak

Mineralak biltzera joan nahi dutenentzat gomendioak ere eman dituzte antolatzaileek. Arropari dagokionez mendiko arropa, botak, euritakoa, aldatzeko arropa eta txanoa eramateko aholkatu dute; hamaiketakoa egiteko janaria eta edaria norberak eraman behar du, eta mineral aleak biltzeko mailua, zintzela, poltsa, egunkari papera eta motxila ez ahazteko gogorarazi dute.

Ekitaldiz betetako astea

Mineralogia eta Paleontologia Astearen barruan ekitaldi gehiago ere izango da. Urriaren 26tik azaroaren 1era erakusketa monografikoak jarriko dituzte Urrelur museoan eta Juan de Lizarazu erakusketa aretoan. Ederrena pilotalekuan mineralen, fosilen eta harribitxien azoka urriaren 30ean eta 31n ospatuko dute. Asteburu berean haurrentzako mineralogia eta paleontologi parkea ere egongo da, txu-txu trenarekin batera.

Jarduera berezia ere abiaraziko dute aurten. Txema Hernandez geologo donostiarraren laguntzarekin kultur etxetik abiatuko da mineralogo zaletuen taldea, eta herrian barrena joango dira aurrez prestatutako ibilbideetan. Eraikinak eta kaleak egiteko erabilitako harri desberdinak ikusteko geldialdiak egingo dituzte. 20 minutuko joan-etorriak izango dira, eta geldialdietarako oinezkoen bistara dauden eraikuntza-materialak aukeratuko dituzte, kasu batzuetan informazio gehigarria ere badutenak, fosil sedimentatuak edota uztartutako mineralak kasu.